

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Altsasu



Aurkibidea

Udalerria: Altsasu

Sarrera



Burunda eskualdeko hiriburua da. Nafarroa, Gipuzkoa eta Arabaren arteko komunikazio ardatza da errepidez zein trenbidez, eta ondorioz toki erakargarria da industriarentzat; hori dela eta, biztanle kopuruak gora egin du nabarmen. Joan den mendearen bukaera aldera hil ziren Altsasuko azkenengo euskaldun zaharrak. Hemen ditugu azkenetariko hiltunen zenbait grabazio. Euskara berpizten ari da poliki-poliki, eskualde osoan bezala. Argazkian Altsasu, Urbasa menditik ikusita ([wikipedia](https://en.wikipedia.org/wiki/Altsasu)).

- **Biztanleak:** 7.623
- **Euskaldunak:** %21,88

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **11**
- Zintak: **12**
- Pasarteak: **44**
- Transkribatutakoak: **17**
- Audioak: **32**
- Bideoak: **9**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak
- Izaskun Etxeberria, Altsasu 1986
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Marino Arramendia Urrestarazu (1921-2015)



Altsasuko Iortia auzoko Goikoetxea baserrian jaioa. Bai aita eta bai ama altsasuarrak zituen. Altsasun tren geltokia zegoenez, kanpotar asko ibiltzen zen herrian, eta erdaraz asko entzuten zen kalean. Orduan, nahi eta nahi ez ikasi behar omen zuten erdaraz, etxean euskara hutsean hitz egiten bazuten ere. Orduan erdaraz ez zekienak irtenbide bakarra omen zuen: Iratira joatea basoko lanera. Errepublikara garaia garai ederra bezala gogoratzen du; "Viva la república" esanez aritzen omen ziren. Hamabost urte bete zituen egunean hasi zen gerra, eta Altsasutik Zegamara joan ziren bera eta bere familia.

Martina Arrizabalaga Bengoetxea (1898)

Francisco Gerriko Goikoetxea (1902)

Altsasuko azkenetariko euskaldun zaharra. Altsasun, 1986-01-27an, 84 zituela, Izaskun Etxeberriak grabatua. Elkarriketan zehar bere emazte Agedak (etxarriarra) ere zenbait kontu kontatzen ditu.

Patxi Goikoetxea Patxi Hermoso (1910)

Altsasuko azkenetariko euskaldun zaharra.

Teresa Lezea Sarbide (1910)

Izaskun Etxeberriak 1986an Altsasun egindako grabazioa, Donostiako Majisteritza Eskolako lan baterako.

Frantzisko Mazkianan Guridi (1922-2010)



Altsasuarra. Gurasoak ere bertakoak ziren. Sorozarreta baserrikoa zuen ama, hain zuzen ere. Bertan eman zituen bere lehen urteak eta handik jaso zuen euskara. Gaztetan, errotaria eta basogizona izana, Paco "el molinero" ezizenez zen ezaguna.

Bertako euskararen azken hiztunetariko bat. [Ramon Zufiaurre](#)ekin batera egin zioten grabazio txiki bat 90eko hamarkadan.

Juan Mazkieran Iriarte (1918)

Altsasun jaioa 1918an. Gurasoak ere altsasuarra zituen.

Ageda Perkaz Zufiaurre (1905)

Altsasun jaioa. Gurasoak ere bertakoak zituen. Altsasuko azkenetariko euskaldun zaharra.

Luisa San Roman Bengoetxea (1905)

Altsasuko azkenetariko euskaldun zaharra. Besteak beste, linuaren prozesuaz dihardu. Testigantza interesgarria, linagintza ezagututakoen grabazio gutxi baitaukagu.

Santiago Zelaia Urrestarazu (1934)



Altsasun jaio zen Santi. Aita urdiaindarra zuen eta ama Altsasukoa bertakoa. Gurasoek gaztelaniaz ozta-ozta jakin arren, berari asko kostatzen zaio euskaraz mintzatzea. Hala ere, gogor ahalegintzen da. Altsasuko euskararen gainbehera ezagutu zuen, eta pena handiz bizi izan du, gainera. Herriaren historiaren, lehengo kontuen eta toponimiaren inguruko zaletasun handia izan du beti. Altsasuko toponimia jasota du, eta baita Urbasakoa ere. Herriaren historiaz eta zenbait toponimoren jatorriaz azalpen interesgarriak eman zizkigun.

Ramon Zufiaurre Larraza (1918-2001)



Altsasuarra. Aita altsasuarra zuen, ama berriz, Bakaikukoa. Bertako euskararen azken hiztunetariko bat. [Frantzisko Mazkieran](#)ekin batera egin zioten grabazio txiki bat 90eko hamarkadan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Hika-zuka bereizketa hitz egiterakoan

- **Hizlaria(k)**: Gerriko Goikoetxea, Francisco
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Izaskun
- **Erref**: ATS-002/010
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:12:49. **Bukatu**: 00:15:08

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Tratamenduak
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena:** Senar-emazteen artean nola hitz egin izan den, hika-zuka bereizketa. Franciscok zein bere emazte Agedak (azken hau, etxarriarra) hitz egiten dute pasarte honetan.

Transkripzioa

-Francisco: Senar-emaztien artien da -ez hemen bakarrik e- [...] senar-emaztietan ezin dei tukan da hikan esan e? Hoi, edukazio falta haundi bät ero... Ba ez dakit /eztait/, ebein artiin gauza... Guai, hikan, senar-emaztiek hikan. Ze? [...]

-Ageda: Oi! Hiketan, senar-emaztie ikustie osso txarra!

-F: Zukan beti ta errespetu handikin zukan.

-A: Hiketan hasten badie malo!

-F: Malo.

-A: Burruken o...

-F: Guai umieiri, guai nesakiyai, nesakiai: "ze eiten don", ero "noa hua", ero "nundi hator", ero "ze ein ber don", ero... Nesakiyai ezta? Baia mutikiyai ezin dezu, hori hola esan e? "Ze eiten dok" ero "noa hua" ero "nundi hator" /nundiyator/ ero "ze ekaar dok" ero "zer hail". Ba mutikiyai ya, ez da /ezta/ iguel e? Ez da berdin! Nesakiyai nola mutikiyai. Bai... Eta hauk e, be ilobatxuek, jobar, ebein artiën? Nola gauz hoik gordetzen tubeinak? Joder ondo gio!

-A bai e? Hikan ta?

-F: Hikan da... Bai, bai. Gue ilobok, nola ebein artien nola gordetzen dein esaten dot, ta hori. Zukan da, nola...

-A: Zukan dana. Guk.

-F: A, guk bai /gupai/...

-A: "Es que" hiketan hasten badie, "pues"...

-F: Bai, baia lehen hemen, hala zan ba. Gero bakizu!

-A: Lehen bei, beye guai!

-F: Zure aitajaunak nola esaten zen?

-A: "Hombre"! "Ematen badinat boillo bat..."

-F: "Ematen badinat boilo bat!", "¡me cago en...!"

-A: Hure, gu aittune, Alsasukue zan, ne aittune.

-A bai, Alsasukoa e?

-A: Alsasukue zan. Alsasuar finn bet zan! Eta, gui txokatzen zakiun harren hizkentzube. Harrek beti euskera. Euskera, Alsasun aaitzen zan bezela eitten zen. Eta gio: "ematen badinat boilo bat!"

-Boilo, zer zan boilo? Zaplastakö edo...?

-F: Zaplastako, hori! Zaplastako, bai.

-A: Zaplastako da, boilo bat! Ta guk ez giñen... hartara, ez gaunden, halako hizketa!

1.2. Euskal hiztunak

- **Hizlaria(k):** Gerriko Goikoetxea, Francisco
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Izaskun
- **Erref:** ATS-002/014
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:16:33. **Bukatu:** 00:18:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararekiko sentimendua
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Agedak euskara norekin erabiltzen duen azaltzen du, Ameriketako euskaldunei eta garai bateko euskaldunei buruz ere hitz egiten du.

Transkripzioa

- Gu´re fan gindan lehengo egunean, ta ondo!
- Luisa?
- Bai.
- Bai, bera nekin juntatzen danen dana eskuaz iten dau. Ta nik ez nen e... lagunak e euskaz ez dakienak dukezkite. [...] Beia juntatzen naizenin e harren moduko, hola dakienakin, ba, niri gustatzen zait euskeri. Eskueri bada, gauza polita da.
- Gurea.
- Ba hori. Ata zan, fan dan jaian, fan dan domekan, atea zan Ameriketan, eskuez danak! Bakizu! Harritute gelditu nitzan. Bilbaukuk esaten ziala, Bilbaukuk: dana, danak e, eskuera, eskueldunak. Han, danak sobra´re, inguruko lagun danak juntau zian batea? Ta in zein jai bat! Uii! Haik musikak eta, toruk eta guzi zitubein! Haik barrikitak iten zitubeinak, oso. Baia bazakiein haik euskeri polita, eta ondo. Ai! Ni, hara! Txoratu nitzan aitzen!
- Hemengoa re oso polita da.
- Bai.
- Neri gustatzen zait hemengoa.
- Ba, aitu bazendu hura! Ta danak jartzen zien, kristel horren kontra-kontra. Bai. Eta niri [...] Sobra ere, ebeik euskaldunak baserrikuk izein zian, garai batin! Ta, han ikusten [...] etxe hoik eta hor jarriik, eta sumatu zen nire euskalduna [...] nitzala.
- Jode! Alasura etorri ziren hona?
- “¡Qué va!” Ameriketan! Han hasi ta, iten zein hitza! Eta han, [...] danak eskaldunak! Alkarrekin iten zein haik dana euskaas!

1.3. Euskara eta gaztelania Altsasu inguruan

- **Hizlaria(k):** Arramendia Urrestarazu, Marino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATS-007/014
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Zerbait izateko erdaraz jakin behar dela kontatzen du. Altsasutik Gasteiz aldera gaztelania ikasteko aukera asko zegoen, izan ere trenbideko langile asko eta asko etorkinak ziren.

Transkripzioa

Ordun, erderaz ikasteko, nahi badezu zeozer izatea, [...] erderaz jakin in behar. Nahi ta nahi. Nahi ta nahi jakin in behar da. Ta Zeamako, ez dana e, [...] Nafarro, Alasun, Nafarro Vitorialdean, estoo, erderaz ikasteko? Askok diek! Ta berriz´e, han erderaz, klaro, ordun ferrobiari asko diek. Askok, ta. Ordun, dana, batzuk, gallego, beste bizkaitarrak, beste Burgos, beste

Zaragozako, ta dana nahastu ta... Han, nahi badezu zeozer izatea, erderaz jakin in bihar, nahi ta nahi, bestela bakizu ze tokatuko den.

1.4. Gaztelania non ikasi

- **Hizlaria(k):** Arramendia Urrestarazu, Marino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATS-007/019
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:08:36. **Bukatu:** 00:09:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Etxean euskaraz egiten zutela azaltzen du eta gaztelania hazitakoan ikasi zuela.

Transkripzioa

- Ta zuen aitona-ta, Altsasukoak bertakoak, euskaldunak zian? euskeraz iten zuen?

- Bai, bai, bai. "Y tienes, ah mira así como iban a aprender el castellano a este, a... ¿de Alsasua hacia Vitoria? De Alsasua hacia Pamplona, ¿Urdiain y todo eso?" Erderaz ez daki! "¡No sabían el castellano, solo el vasco!"

- Zuek, ordun, etxian beti euskeraz hitz egin izan zenduen.

- Bai, bai, euskeraz.

- Ta kalia ikasi zenuen erderaz? O eskolan? O nola izan zen?

- Eskolan? Soziedadaren! Euskaraz, dana, normal "casi" euskaraz.

- Ta erdaraz nun ikasi zenduen ba?

- E?

-Txikiya ziñala ikasi zendun erderaz, ezta? O behin hazitakon?

- Hazitu! Beez.

- "Ya bastante" hasi zanen.

- Bai! Bueno, dana, hoixe!

- Hemezortzi urtekin o.

1.5. Eskolan eta kanpokoekin gaztelaniaz

- **Hizlaria(k):** Arramendia Urrestarazu, Marino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATS-007/023
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:14:37. **Bukatu:** 00:16:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena:** Altsasuko eskolan ez zuten euskaraz egiten. Altsasuarrak gaztelaniaz hitz egiten "torpe" xamarrek zirela aipatzen du.

Transkripzioa

- Eta Altsasuko eskolan euskeraz iten zenuten? Erderaz.

- Ez, erderaz, dana erderaz. Jode! [...] Euskeraz hitz e, Olaztin belarrondo ematen [...]! Jun hai harea! [...]

- Hoi zer zan, Primo de Riveran garaian?

- Bai. Ordun, Primo Rivera, baiño ez azkeneko hoi e, Primo de Rivera. General Primo de Rivera, diktadura e, ordun e, ordun.

- Ta ordun nolakua zan eskola? Oso relijiosua?

- Batzuk bai, han herriko zaharrak, dana! Beste, erdi rebelde. “¡Coño! Ferroviario”, Irunetik! Makinistak eta hori, Mirandatik! Valladolid! “¡De Zaragoza! Alsasua! Te venían te cambian, te cambiaban tren”. Erderaz! Erderaz! “Igual la cura”, [...] erderaz “la cura y así igual decíamos ¡y otra hostia! ¡Venga!”

- Bai, e? Zuek, Altsasukok bertakok ziñatenak... erderaz... parre eingo zizuen?

- Bai, karo, dana nahastu!

- Ta besteak? Gallegok eta Irunekok eta hoiek erderaz ondo?

- Erderaz? Valladolid, Burgos ta... Hoben-hobe-hobenak izein die hoik. Horko die. Burgos, Palencia, Valladolid, hor.

- Ta zuek haiekin ikasten zenuen erderaz?

- Erderaz, bai horixe, nahi ta nahi. Jode, beharko ikasi [behar]! Aber, esan ez ez, euskeraz!

- Eta, bestela, zaplastekua!

- Bai.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Bertsoa Altsasuko euskaraz

- **Hizlaria(k)**: San Roman Bengoetxea, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Izaskun
- **Erref**: ATS-004/005
- **Iraupena**: 0:00:13. **Hasi**: 00:03:32. **Bukatu**: 00:03:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: Bertso bat abesten du.

Transkripzioa

Ikusi nuben zorria gitarri jotzen,
arkakosua dantzan da tximitxa barrez lertzen (bis)

2.2. Andre Madalen kanta

- **Hizlaria(k)**: San Roman Bengoetxea, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Izaskun
- **Erref**: ATS-004/007
- **Iraupena**: 0:00:16. **Hasi**: 00:03:46. **Bukatu**: 00:04:02
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: Andre Madalen kanta abesten du.

Transkripzioa

Andra Madalen, andra Madalen, laurden t’erdi bat olio
Aitakin zena kobratzen dionin joan da pagatuko dio (Bis)

2.3. Sorginak Errotan ipuina

- **Hizlaria(k)**: San Roman Bengoetxea, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Izaskun
- **Erref**: ATS-004/013
- **Iraupena**: 0:04:58. **Hasi**: 00:06:01. **Bukatu**: 00:10:59
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Errotara doazen sorginei buruzko ipuin bat kontatzen du.

Transkripzioa

-Lehenoko kontubak hasi naiz esaten, e.

-Bai

-Faten zien, faten men zian, bos "lavandera", "esto", errotaa. Errota "es el molino",

-Bai bai bai, badakit.

-Garbiketaa. Ta bat emen zenen sorgina, txikina sorginena. Ta hautza garbiketa, garbiketa zan da, esan emen zuein: "Neska, hemen gen danok?" eta "Ez Maina Mikili falta don /falton/". "Betiku! Hura betiku!". Gio faten zanen Maria Mikili hoi, txikien hoi: "Neska, bahator", "Oi! Aitu e, kontu bat. Aitu e, kontu bat", "Hi betiku! Hi beti aizkeneku". Ta "Ze aitu don, ze aitu don /zaitun/?", ba "Esan girubenei hemen ibiltzen dala norbeit guri kontubak aitzen, errotan". Ta gio, [...] dakiela harrek, zengeiti behin hola kontubek aitu, han ee ebein artien hizketa ein ta: "Neska, bakin ze pasatzen dan?", "Ze pasatzen don ba?" ta "Erregen, erregien alabi gaixki emen jon, ta bajakinet /bahakinet/ zekin sendatuko dan /sendatukon/", "Zekin ba?" ta "Zaldi zuri bat, ordu bat, korrikan fan da torri ta gio harren pitsa hartu, izera zuri batin, eta gio harrekin bildu, erregien alabi ta harrekin, sendatuko don /sendatukon/". Ta, klaro, gio kontu horrekin /kontuborrekin/ aitu jitu, jito batek han zola, eran zitunen ee, mandatuba erregiai, alabiai. Sendatzeko ta, gio, "como digo" fan zanen sorgin hoi, txikien hoi: "Neska, aitu dezubei /aituzubei/ kontu bat?" ta "Zer da?", "Erregin alabi sendatu emen don", "Sendatu? Ta zekin!?", "Zekin? Hemen norbeitak guri kontubak e, aitutzen gerubenei!" ta "Neska!". "Espera pero no he dicho, espera, luego ese. Sí, espera, sí" - "ese que fue", - "esto" - fan zana erregiengana, gio ta alabi senda zinen harren emerremiyoakin ta, gio eman zonein diru asko! Harri. Erregin alabi sendatu in zinen harren mandatubakin pagatu emen zinein sombrerukin, bastonakin, korbatiakin ta señorituta. Gio kanpuen hola topo ein be, beste ponporo batekin: "Bueno, bueno, ze pasa zaizu zuri /zaizuri/? Hain eleganti guai? Zer pasa zayo? Zer da?", "Bayakin kontu bat, halako lekuban errotan, sorginak faten tun garbiketa!", "Bai?", "Ta harrek gauz asko jakiten dinei!" ta "Hala aitu ninen nik ee, erregien alabiai erremeyo iteko, bai! Ta mandatu harrekin fan nintzanen ta, alabian erregi sendatu zanen, ta gio niri zaku bat diru ta ondo jantzi ein zionin". Ta guai re, errota. "Yo como digo" fan zanen e, bordaran labandari, aixkeneku ta, ebein arten: "Neska, hemen gen danok?" eta "Ez, bat falta don /falton/! Maina Mikirri", "Hura betiku!". Gio fan zanen, ta: "Bahator?", "Bai Maanton", "Hi beti aizkeneku!", "Oi! Bazindekinein? Erregin alabi sendatu da /sendatua/! Guri norbeitak kontubak aituta, [...] alabiangana bai, ta sendatu don /sendatuon/". Esan zinein ebein artin: "Ba guai, erregistrau ein ber dinau errota, balin bajon norbait hemen, errotan". "¿Cómo se dice moler?" Errotan.

-Txikitu ez? Txikitu.

-Bai txikituz Errotan [...] txikitu ein ber dinau! Hasi zanen errotan erregistratzen ta han bilau zinen jitu. Han lo! Harrek ez aitu kontubak [...] Begi argi batzukin /artzukin/ aitzen kontubak baia lokartu in zinen, zanen da ez aitu kontubak! Eta bilau zinein lo! Ta bilau zenin esan emen zinein: - Hemen jon, hemen jon! Guri kontubak e, aitzen gerubena. Hasi zazu, zazue, erroti! Hasi zazue erroti, hasi zazubei! Ta barruba sartu zinein errotaa, molitu zinein. Ta “ya está, colorín colorete”.

2.4. Karlisten denborako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Perkaz Zufiaurre, Ageda
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebengoa, Maixabel
- **Erref**: ATS-009/001
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:04:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- **Laburpena**: Karlisten denborako kontuak. Orduko kanta bat ere abesten du.

Transkripzioa

- Karlista-denboran; karlista-denboran? bakizu, emen, ioten emen tzian emen ee... etxe... eskin oitan, or, ‘sardinak’ eta bizi dian etxe-ale oietan? pertz aundi batzuk eta, tropak? tropak etortzen tzian-da. Emen? etxë ontan?

- Ni izaten naizen zure etxean?

- Emen? emen? bizitzien tzian San Miel karnizeruanak, eta arek ekartzen zituen ganau-samaldak, eta tropa da mayek aren erpearen erpearen iteto (?), d’etxe ontan? ioten tzan, Cuarto Socorro ori don artian? matadeiya! matadeiya. Eta... klaro! geo tropa aiek etorri tarter-taranter-taranter-taranterkara-terkara, soldaõ danei jateko? bakizu? ekarri ber, jana, miles de hombres...

- Bai...

- Ta bueno, geo? Juan Carlos eo... Carlos Setimo; Carlos Setimo? emen etorri, et-, etortzen emen tzan, borla morau batzuki(n)? eta danak, an-da faten emen tzian, borla airea, ba, nunbaitea?... ta, oi! una guerra importante.

- Eta nongoak ziren gizon horiek? soldauak eta... Soldauak? karlistak, karlistaenak...

- Nongoak, nongoak esan dezu?

- Jakin duu guk! emen, Nafarroa alde danekuk!... Nabarra, Nafarroa aundia da, ta geo? bueno... geo? etor tzian ee... gerri ura karli-, karlist-, Iruritan-da, ikegarri t’atakeik izeten emen tzian. Ta, bitartin? emen, karlistak agintzen tzain, e? da geo berriro galdu in tzein, etor tzian beltzak...

- Bai?

- Beltzak, ta kantatzen tzein e... geo... kanteitan:

Ama Berjina Kontzepzioko
Zan señaladamentian
Milla zortziraun irurogeita
Amalaugarren urtian.

Nork esango du, zer pasatu dan
Beltz karlista oien artian
Donostiatik abiatuta
Andoainera bitartian.

Asike, gerra-denbori? oso... geo, gur amak esaten tzen, ama txikittu zala?
nola... emen ioten tzian, soldaduek beteik gerriya?... eta, karlistak galdu
zein garayan? gerri? or, zen e... Sozarreta... zena...

- Bentan?

- Zen, Sozarret-, Sorozarretako bideberri oi, tropak ezin kaituik! liberal oiek
atratzen emen tzian-da, orduan karlista danak, alde, eskapu in tzein. Izaten
tzien karlistak eta beltzak.

- Eta beltzak zein ziren? nongoak edo zer ziren?

- Aik izein tzian e... karl-, esto... liberalak. "Biba karlistak eta muera
liberalak, fedian fide-, firme daude, gure jeneralak". Ori kantatzen tzein
karlistak.

- Eta liberalek zer kantatzen zuten?

- Karlistak ein tzein galdu, eta... liberalak irezi... gerri; aik tzian liberalak.

- Eta hemengo neskak ongi ibiliko ziren, ezta? hola, soldadu guztiekin...

- Ola? bah! zeatik, garai aietako kontuba, gu ama txikittu zala? pentsa
zazu!... gu ama txikixu zala; goai zenbat urte izein dien oiek! eztakit, egun
da ainbeste... berraun urte're!... bah! pentsatu leike, mila zortzireun
irurogeita, amalaugarren urtian.

- Ehun urte...

- Egun urte.

- Ehun da hamar urte...

- Egun da amar izein tzian guztia.

- Klaro!

- Alaxe ba, gu amak kontu... bertso asko zakizkien, eskuez; orduan dana
eskuez iten tzan-da! etzekien erdeaz iork ee...

3. Familia eta harremanak

3.1. Bere buruaren aurkezpena

- **Hizlaria(k)**: Arramendia Urrestarazu, Marino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ATS-007/016
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:04:05. **Bukatu**: 00:05:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Bere burua aurkeztu eta zein auzotakoa den aipatzen
digu.

Transkripzioa

- Marino! Arramendia! Urrestarazu! Etxeberria!

- Bikin nahikua, e!

- "Nada, nada", dana bete! Bete ondo!

- Bota, bota.

- Bei! Etxeberria! Bueno, Etxeberria! Goikoetxea! Ama, bigarrena amak
Goikoetxea. Goikoetxea! Este... Geo... Goikoetxea, Uribe, Landa, Larrea y
Larrea.

- Ño! Ta nun jaioa zea zu?
- "Alasua, dieciocho de julio, barrio de Iortia".
- Iortia?
- Iortia, bai. Ba herri dana de, baiño, alde [...] hango baztarrekoak.
- Barriyoak.
- Bai, antzekok. Lehen, auzobide, lau auzokoa [...]
- Auzua.
- Ta baserriyak nola zun izena? Baserrikoa zea zu o kalekua?
- Baserri ordun!
- Nola zun izena baserrik?
- Herri bertan zeok eta dana! Izena?
- Nola zun izena baserrik?
- Goikotxeakok, etxea, Goikotxea ta Urrestarazuko, baia asko. Urrestarazu asko diek han! Han bertan, guu etxeti ondon, oo attonaan ondon, hiru Urrestarazu die ta ez dau relazio.
- Familikok ez.
- Ez, "no tenían, no".
- Ta ze urtetan jaiua?
- Ze?
- Ze urtetan jaiua?
- Ze urten? "Veintiuno de julio, de mil novecientos veintiuno".
- "¿Veintiuno?"
- "¿Veintiuno? No, ¡dieciocho de julio!"
- "Dieciocho de julio".
- "No, veintiuno".
- "El año veintiuno".
- "Sí, el año veintiuno".

3.2. Haur-jolasak; "atxia" eta beste zenbait

- **Hizlaria(k)**: Gerriko Goikoetxea, Francisco
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: ATS-010/001
- **Iraupena**: 0:05:39. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:05:39
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Haurra zela egiten zituzten jolasak. "Atxia" jolasa nola zen azaltzen du. Gazte-denbora Kalifornian pasa zuen.

Transkripzioa

- Zu txikia zinelarik hemen, karrikan, jolasten zineten?
- Bai-bai-bai-bai.
- Oroitzen zara zernolako jolasak ziren haiek?
- Emen...-ko jolasak orduban izan, prinzipalen-prinzipalena, pilotie; zuk kusten? alakok, ola nola den, bizi dien tzuk?
- Bai.
- Ori pilotian entrenadore, nik pilotean afizio aundie ureitzen (b)ai. Orduko, bakizu, pilotiak eta, pilotiek iten neen... pilotiek ekar; zuk ezpalin baukazu pilotako afizona? je! eztukazu pilotako afizona. A, ala, pilotie, ta geo? ba... beste jolas batzuk e izaten zian: ibai, iberian e bai...
- Igerian?
- Ibei, ibeikan, ibeikan; eta geo? este... atxikan e bai, atxiya esaten dogu

uk, e? olako... eburrekin, e? ya olako, atxiya esan zaio, arri jo? ta geo kalderon, beste zerbat e bai eta, oiek gue...

- Eta atxia edo atxika edo hori, zer da? ea kontatzen duzun...

- Ori da...

- Makila ttiki bat edo?

- Ez, ez; olako zerbaten... makillakin iten dana, guk emen pagua ero izendu tau asko, orduen-da, arreki(n) eiten dana, ta, ura paatzen dezu... xuti, ezta? eta ura, jo ber dezu? eta zenbaitekinez irruti bota? ta ura, orren... sekretu ori a, irrutio bota tai. Arrek, ioten ezpadau lagunak? botatzen dau? ta, arrek atzertatzen balenau, ura geo, jartzen da? eta zu berriz arutza... ola-ola, jokuba ori a, ango orri...

- Eta zerekin jo behar da?

- Beste makil (b)atekin, bai, bai, olako luxeonto ura? ori a, atxi(y)a esaten doun ure, e?

- Atxia?

- Bai, atxia. Geigo? guai e... etzet berriro, eztet aitzen, e? este... golf ero, ze esne-? golf ero, inglesezt golf. Ah, orrekin ibiltzen dia, arrekin, ja! taki atekin, zulo batia ta geo andik ere bota ta!... geo sigientek xulo batea botatzeko, ta nola ibiltzen dian, alako joku modu bat ero eztait ba nik ze esan, e? beri-berdi(n)...

- Atxia edo atxiya?

- Atxia, guk esatau, ba, atxia esan dau.

- Ez dakit ez ote den hori Nafarroako beste zenbait herritan 'toko' edo 'marro' edo deitzen dutena...

- Ez... emen ori a, ori a, guk; emeti kanpo iyon, inulapetetan ibili. Ne gazte-denbora gäyena an [Kalifornian] pasatu neban nik, amar urte pasa nituben da, emezortziti, ogeitazortzi urti bitartien, ta, denbor ortan ba emeko gauza asko ezta... azi iñi(k); ango pai! baia emeko gauzek ee, joko-klasek eta... bitartien etor tzian emen zinek eta, orduen ekar men tzian fermen (?) zine et-eta-ta, guk ekarri ez zineik ez ere, nik enakien zer dan zineik, e?... an bai! an badiä zine ta gëo, zine sonoro ta... kontu oiek yo an eta. Geo, andi etor nitzen garean? emen zine bai baia, zine sonoroik ez geñea ta, mundu oe... eztait ba gauzä... jooo!

- Eta zer beste jolasak izaten ziren, hola, umetan? kanikak edo zibak edo...

- Geo beste at e bai, ola... segun, zerbat izen zan, bi puntatati, xorrotx-xorrotxa in? ta ura da.

- Makiltxo bati edo?

- Makila're bai, ta, ura... bakienegun... jokue nola dan, ola, jo? ta tras! ola jo berriz, jo berriz eta!... Arrek berriz ee ori, jo onutza berriz-eta, ola itten zan e, koño, nol (i)zen zeen arek? atxik-, u atxikan, ura kalderon, kalderon tzeen arek, bai. Ta, ezpazenduben ondo iten ero ora? kastiguz geo, ez zezubein kentzen baia, ola, geinetik jo berrin? ola, ankazpitik jo bertzen genduen. Aitzia duzu?

- Bai, bai...

- Geineti ola, geineti ola... ola, geineti, plas!... korri? eta ezpazendun ondo iten edo? aurrengo aldian? ola, azpitik jo ber da. Yeh! ola-ola... bai-bai, ume-kontubak ero gazte-kontuak.

- Eta lehen aldiz, lehen kolpea emateko, botatzen zen makila ttikia airera?

- Ori! ori a, ori a, bai... bai.

- Eta bada beste jolasa: umeak ezkutatzen dira eta bat gelditzen da paretaren kontra (...); erdaraz esaten zaio 'a bules, al escondite'...

- Ah, al escondite, bai, beia... enen ori ikesi, ori oait, baia, ori goitatzten orai, bai. Eztait ya suertien nola atako zan ori, ta suertien nolaaait, eli[mi]natu, ume artin, suerte ein-da, nola, orman nola... begiek itxik, ta enaiz akordatzten nola esaten tzen gauze arrei, nola... ze esaten tzäin. Ta, geo korrikan etor tzena batek? eta, zer, bee... lekuba arrapatu zeen? ta

bestei e bai? ta, arrek nunbai(t) inko zuen? arren... izan, geo arrek? ura, arrek geo in ber tzeula, o ola, ala...

4. Bestelako kontuak

4.1. Herriaren jatorria eta frantsesak

- **Hizlaria(k):** Arramendia Urrestarazu, Marino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATS-007/017
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:05:49. **Bukatu:** 00:06:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Bestelako kontuak » Historia orokorra
- **Laburpena:** Familiaren jatorriaz hitz egiten hasi eta herriaren sorreraz hitz egitera pasatzen da, nola frantsesek herria erre zuten, honen ondorioak...

Transkripzioa

- Ta zure gurasok nungok zian?
- E?
- Zure gurasok, nunguak?
- Bertakoak! "¡Desde que se fundó el pueblo!"
- Bai, e?
- "Ahí los franceses quemaron todo la eso, y la..."
- Euskeraz!
- [...] Frantsesak dana erre, frantsesak Salviatierrako eta jende erdi euskalduna, ordun, euskaldunak, ordun apartatu zian Naparroti, Gipuzkoa, ta bakizu? Bai. Ta andramari, oraindi, oaindik, egunean gaiñea, "el dos de julio era el esto, la fiesta, del esto y..."

5. Politika

5.1. Primo de Riveraren garaitik Errepublikara

- **Hizlaria(k):** Arramendia Urrestarazu, Marino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATS-007/024
- **Iraupena:** 0:05:58. **Hasi:** 00:16:22. **Bukatu:** 00:22:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
Politika » Gerra aurea » 1923-1931: Primo de Rivera
- **Laburpena:** Primo de Riveraren garaitik Errepublikara emandako aldaketa kontatzen du, zer abesten zuten... Eskolan emandako aldaketa ere aipatzen du, mikeleteak, berria zabaltzea... "Akullu" ere aipatzen du, bere garaian gerran ibilitako hegazkinlari errepublikanoa.

Transkripzioa

- Ta, goguan dezu, Primo de Riveran garaitik Errepublikara nola pasa zan?
- Bai, jaune, ta ondo akordatzen, gaiñea!

- “¡El treinta y dos!”

- Bai! “¡El año treinta y uno!”

- “El treinta y uno”.

- El año treinta y uno, y el veintiocho y eso”, Primo de Rivera.

- Ta nola kanbiatu zan asuntua?

- “Si sabrían los curas y frailes, la paliza que van a llevar, iría el coro cantando: ¡libertad libertad libertad!”. “Eso y: ¡Viva la República!” Joder hi! Jode, attona joder hi monarkiko, hoik monarkikok? Joe! “¡Me cago en la leche! ¡Viva la República!”.

- Hoi zeñek esaten zun? Kanpotik etorritakok?

- Ta gu re bai! Hoi seitun ikasi zan! Arko bat izen han Alsasun! Akullu! Akullu esaten diogu, Goikoetxea. Joe han, bueno indarrak ordun, sasoi [...] Gio, dotrina ikasteak, han, berriz, Don Marino, Don Marino. “Me cago en diez”. Hi torri hona, torri, torri, torri paren, hi paren torri.

- Ta ordun zuek eskolan gauzek kanbiatu ingo zien, ezta?

- Ordun, Don Sandalio Moreno. “Era de Bilbao, era bilbaíno y estaba casado con una de Alsasua, y” eskola partikularia ematen [diu] orduen. Harrekin, erderaz. Bi neskak, mikelete... sargento mikelete Otzartekoek alkar ibili zien gurekin eskolan. Han, partikular. Bai! Ikasi ta,... Gio, hortikan, Otzarteti a Eibar etorri zen aite, sargento de miqueletes. Ta bat, neska bat, andereño [in zen], erderaz ondo hitz eiten dik eta. Ta bestia telefonista. Ordun, forua, Gipuzkoako forua, diputazioak, e? “Aquel aprendió, aquello, telefonista, entonces era de la diputación”.

- Ta Errepublikak etorri zanian “crucifijo” guztik ta dana kenduko zian, ezta?

- Bueno! Hoixe, dana, dana! Jolin, ordun, bueno, bueno... “Viva la República”.

- Kanpotik etorri zian errepublikanok? O herriok zien?

- Bai. Ya bazeo, ya ba ya hemen ya jarri zen ya. Lehenbiziki, errepublikan Españan, Eibar in zan ordun. “En Eibar, el trece de abril. El catorce, oficialmente ya toda España ya. Barcelona y Madrid y todo ya. Pero, en Eibar el trece”.

- Ta zuek jakin zenduen notiziya?

- Dana! Hoi bueno, korritu? Bueno! Komunistak batzuk eta bestiak ta ba! Hoixe dana be aldeko korritu, be aldekuak!

- Bai ba, be aldekoak!

- Altsasun bazeuden ya komunistak eta?

- Ez [...] Ta geo, ordun trenak ibiltzen. Ordun Alsasun trena guzik gelditzen dien han. Ordun, baporrak, “este... vasco, este... vapores...”

- Lurruna.

- Urruna, urru. Ez, nola?

- Barku.

- “Tiene otro nombre”. Larruña.

- Lurruna, lurrunezko trena.

- Bai, bai. Han kanbiatzen di dana, ta Indalecio Prieto, ordun. Joee...! a ze nausi, ta “ferroviario”k danak sozialista. Han Alsasun dena sozialistak – komunistak batzuk bai, baiño–“socialistas o monárquicos” [izaten]. Bueno!

- Karlistak?

- “Bueno, ¡a ver! Don Indalecio, a ver éste se acuerda de los ferroviarios”, jornal eskasa ta [jornal...] “Cuando, ¿sabes lo que le había, contestó? Cuando dice: tened en cuenta, que el duro ferroviario vale seis pesetas, entonces eh. ¿Por qué y? Lo que robáis, ¡no te jode!”.

- Hoi Indalecio Prietok erantzun zion?

- “¡Menudo bicho era! ¡Menudo listo aquel! A los que [vienen] al tren a saludarle en el tren. Jo, ¿ya sabes tú? Las locomotoras, las grandes esas, venían las pasamontañas esas, con el tren, el internacional. Jode venían y, con banderas republicanas y, las locomotoras con banderas republicanas

¡jode!”

- Ta garai hartan Altsasun, zian, sozialistak edo monarkikok? Nazionalistaik-eta ez zan [etzan] ordun?

- Naturalistak!?

- Nazionalistak.

- Oso gutxi. Ta oain´e bai, ta oain´e bai oso gutxi. Altsasun sozialistak eta hoi, republikano ta, [...] elizakoak, elizekuek danak.

- Eta diferentzia sumatzen zan? Betiko Altsasuko jendia igual, zala monarkikogua ta kanpotik etorritako langille ferrobiariok sozialistagok?

- Bai, hoi dana jode. Bai, gio, Franco [...] garbitasun ederra eman dizkan.

- Hoi, hoi galdetu behar nizun. Errepublika garaitik gerra hasi zanea, denboa gutxi pasa zan, ezta?

- Bost urte, bost urte. Holako bai, “el tre... el dieciocho. El trece, el treinta y uno. La República, el treinta y uno, la República. Y el treinta y seis fue la, ya la...”

- Bazenekiten ya, entzuten zenduen gerra hasiko zala, o ematen zula...?

- Bai, “ya, ya había movimientos, mataron a Calvo Sotelo, que era...”

5.2. Errepublika garaiko ideologiak eta gerrara bidea

- **Hizlaria(k)**: Arramendia Urrestarazu, Marino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ATS-007/026
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 00:21:04. **Bukatu**: 00:24:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939)
 - Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- **Laburpena**: Errepublika garaiko ideologiak aipatzen ditu, herrian zeuden joerak. Gero gerrarako bidea aipatzen du eta gerra hasiera. Falangisten etorrera.

Transkripzioa

- Ta garai hartan Altsasun zian, sozialistak edo monarkikok? Nazionalistaik eta ez zan [etzan] ordun?

- Naturalistak!?

- Nazionalistak.

- Oso gutxi. Ta oain´e bai, ta oain´e bai oso gutxi. Altsasun sozialistak eta hoi, republikano ta, [...] elizakoak, elizekuek danak.

- Eta diferentzia sumatzen zan? Betiko Altsasuko jendia igual, zala monarkikogua ta kanpotik etorritako langille ferrobiariok sozialistagok?

- Bai, hoi dana jode. Bai, gio, Franco [...] garbitasun ederra eman dizkan.

- Hoi, hoi galdetu behar nizun. Errepublika garaitik gerra hasi zanea, denboa gutxi pasa zan, ezta?

- Bost urte, bost urte. Holako bai, “el tre... el dieciocho. El trece, el treinta y uno. La República, el treinta y uno, la República. Y el treinta y seis fue la, ya la...”

- Bazenekiten ya, entzuten zenduen gerra hasiko zala, o ematen zula...?

- Bai, “ya, ya había movimientos, mataron a Calvo Sotelo, que era ministro de este y eso, Calvo Sotelo, mataron a aquel porque, a aquel le mataron, a ese le mataron, a Calvo Sotelo le mataron porque había matau, un jefe de policía, en Madrid. Que era de la República. ¡jode! Ya estaba, ya estaba

revuelto todo ya...”

- Eta, ordun, ez zenduen sorpresaik izan, zure urtebetetze egunian, jakin zenduenian, gerra hasi zala?

- Ordun, gerra [...]

- Hamabost urte hik, hik hamabost urte!

- Hamabost urte justo! Hamabost urte ordun! Ta belarra biltzen izeba, Luzia, ta Martzelina, lenbusu, ni baiño urtebete gazte, belarra biltzen. Ordun jakin zen [jakintzen] ta, bastante larri zan ordun gauza. Hor Alasun tren ondon, ya etorri zian autobusak, hi Estellati! Lehenbiziko falangista han ikusi zian, ezautu. [...] Ya biltzen, ya, alde, berriz´e alde eiteko “ya ha fracasau esto. Y fue”, ordun, Franco, ya berriz´e buelta eman dizkan ta berriz´e gelditu dizkan [gelditueska]. Ya hasi zen ya tirokak, Otzartek eta hoi... Etxegarate ta Beasain aldeaa, han Alasuti igual bost egun, alde in zan. Jode bestela garbitu ingo dana ta!

- Aurreneko falangistak! Ordun.

- Ordun! Falangistak? Nik han ikusi, han ezautu nik!

- Guk´e bai!

- Bai? Nik ez dakit, ni falangista? Hoi bai. Primo Rivera, ordun, beste, haren, zaharraan seme, “Marqués de Estella. ¡Jode! Aquel se, aquel, le mataron aquel, Primo de Rivera aquel.”

5.3. Lehenengo falangistak

- **Hizlaria(k):** Arramendia Urrestarazu, Marino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATS-007/027
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:25:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- **Laburpena:** Falangistak heldu zirenean nolakoak ziren azaltzen du, zer egiten zuten eta zer inpresio izan zuten.

Transkripzioa

- Eta ikusi zenituztenian lehenengo falangistak, txapel urdiñakin ta, ze inpresio, ze pentsatu zenduen?

-“ Entraron, ocupación. Requisaban todo”, dana, ya rekisatzen dana ta, “¡Me cago en!” Txapel gorri bat ta, “¡me cago en diez!”. Hartu ta, “máquina de escribir” ta-ta-ta hori, hura hartu eta pensatu soiñu diala. Hoi, etorri zan hor, Ribera Nafarro Riberan, trenak handi pasatzen ikusteko? Korrikan han, harren ondoan ibiltzen ni! Ordun, karlista, “requeté, requetés”.

5.4. Gerra garaiko bizitokia

- **Hizlaria(k):** Arramendia Urrestarazu, Marino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATS-007/030
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:29:51. **Bukatu:** 00:30:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Gerra garaian non bizi izan zen azaltzen du, nola Zegamara joan behar izan zen bizitzera.

Transkripzioa

- Ordun, zu, Altsasun geatu ziñan gerra hasi zanian? Zuk hamabost urte ta...?

- Ordun, Alsasun ez, Otzaurten bizi han, baiño ni dana Alsasun ezautzen [...] bijiletu, ta, dana. Ta, hangoo, hango jendia dana Zelaiko. Zelai, "el barrio Zelai, esto, de la carretera de Gipuzkoa. Aquello, andaba todo..."

- Zegamaa etorriko ziñeten zuek!

- Bai, "todo esto andábamos ahí, yo andaba, andábamos. Y ahí, Martireundi, que, yo viví, nosotros vivíamos, de Zupieta, el último caserío del puerto, de Otzaurte, ese".

6. Diaspora

6.1. Ameriketako koiote artean

- **Hizlaria(k):** Gerriko Goikoetxea, Francisco
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref:** ATS-010/002
- **Iraupena:** 0:06:21. **Hasi:** 00:05:39. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- **Laburpena:** Koiote asko ikusi zituen Ameriketako egon zenean. Koioteek ardiei erasotzen zieten. Koioteen inguruko kontuak.

Transkripzioa

- Eta zer beste animaliarik ikusi duzu han? pumak edo, otsoak edo, azeriak edo...?

- An ere... uh! otso, otso're badie baia...

- Koiote edo?

- Koyote asko!

- Ikusi duzue?

- Boohh!... koyoti asko.

- Eta ardiak ongi defendatzen dira? koioteek ez dute erasotzen? atakatzen?

- Bai... bai-bai; aiek ardiai atakatzen dai asko.

- Bai, e?

- Bai-bai; baia... eztaki iyork, ortan e defensibagoak, atako zaizu, ta, koyoti da ain lixtue!... ain abilla da!... Zuk e... rifle? ah, eskopeta bedan, balin baukazi? ikusko zu, "Koño, an jenbat koyoti, koño! Oik... biar area". Baia, eskopetekin balin bazazi, ez kasi iyun ikusk oyote... jo, indarazia!... Nik ikus dut edar koyotie... tranpan, arrapau? bai, tranpan, e? tranpan pasatu dira-ta aek... tranpaa, tranperuek ez, artaa ebil tzaion... tranpan. Ta, gëo botatzen duei medezin at, ta koyotiei? ze, zoratzeko? eo... koyotei beste martxa at artzeko, vaya.

- Zertarako medizina?

- Medizina? ba, koyotiai... ze? ze esan bear nik e ba? korrotien, (zuzenduz:) koyotien izete modua bakik nola dan, ezta? ta, koyotiai, buruti kentzeko? patzen duai... merezina klas bat iten dai? dukai bada ze balio egin da in

genuna... Bestenaz? ezpaltzeke orregaiti? eztait ardiik goi-goi t'ibiltzen giñun. Ez, ardik ez... ayek, ayek ee, koyotik et-, koyotik eta, koyotik tranpan sartu bai, besu-ta, akabo! ezin igesi, ezin eskaporik, ezin fan. Eta, esta... koyoti orrek? beste at berriz ikus genuen?... koyoti tranpan, besu, besu tranpan bai ta, goroti edai, bee anketaa, ez agerik, agotti bera aire! bee buruba bai!... eta, besu, besu an bertan utzi? eta eskapo.

- Ah, bai, e?

- Bai-bai-bai; pentsatzen ya... arek ze abildia diukan!

- Eskapu egiteagatik, hozkatu bere hanka libratzeko?

- Aber... bera, berak, edai, bai-bai-bai... bai-bai-bai-bai baio, baia ez koyoteik.

- Baina ez koioterik...

- Zeaiti koyoten, koyoti... ah! guai, garaë ontan... geixo; uda, udiago koyotik? eztau balio, eztau balio ba... eiek e guai, oai? emeti, oianko koyotik? baliyo au eta... narrua kentzen duei ta narru arrek baliyo au, e...-metuen, zengeiti... bakizu, Estados Unidosek e... au baino obia, zenbat ta berria, beste modu batzuk bizitzeko ta beste... beste gauz atzuk; narru ura... kurtiu? kurtiu? eta geo emakumiri... este, lepotan patzeko? lepotan patzeko? ta... ortako, ortako, gordetzen dai, baia, udakuk eztau balio, e? mayetzekuek eta... apirilekuek eta... ok, udekuek eztai balio, guai neguko ber da. Eta geiñea?... nik ikus dot-eta... korotza! biorrak, zaldittik, e? ta, baia oooh! zazi zenbat, mila an akalero ordun. Zenbat mila?... zaldiekin biyon jabe're... bion jabe're? ta, zaldi oiek? e... bakizu, zaldi oiek egun txarretan den garäian, eguldi txarra datorren garäian, ba... bi-, billatzen dei leku abriguä, bere abrigo-leku(b)a?... otzarekin ero? denbora-klaseakin pasatzeko. Eta korrikan, ta korrikan-da!... Nik? nik ze ote an, nola da? galde ein ber, zer bil bertan, ta "Ah, oiek e zaldiak dia", ta "Bai, egueldi txarra dator". Ta, andi bi o iru egunea? orduen elurra ero, para-para da elurra, ta, zaldiek emeti-da korrikan! auts bat!... zengatik-eta ibiltzen eta ibiltze ginden, ta, zaldi oien ibilera, ba, autsa bera, "Auts sartu zaida"; ta koorrikan!... ez zan zaldi ezta ikusten e!... autsaatik genuen(n), unean.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Kanta Altsasukoko euskaraz (ATS-002/002)

Kanta bat abesten du Altsasukoko euskaraz.

2. Altsasukoko euskaraz kanta (ATS-002/004)

Altsasukoko euskaraz kanta bat.

3. Hurrei zuzendutako kanta (ATS-002/006)

Altsasukoko euskaraz hurrei zuzendutako kanta baten zati abesten du.

4. Hurrei zuzendutako kantaren azalpena (ATS-002/008)

Hurrei zuzendutako kanta bat nondik datorren, nork abesten zuen... aipatzen dute. Iparraldetik zetorrela eta, bertako biztanleei buruz ere mintzatzen dira. Pasarte honetan emazteak ere hitz egiten du (Etxarriko euskaraz).

5. Francisco altsasuarra eta Ageda Etxarrikoa (ATS-002/012)

Agedak eta Franciscok euren buruak aurkezten dituzte.

6. Bilboko egunak eta euskara (ATS-002/015)

Agedak, Franciscoren emazteak, Bilbon bere lehengusinarene etxean pasatako denboretan euskara nola bizitzen zuen kontatzen du.

7. Etxeko eta soroko lanak (ATS-002/017)

Etxeko eta soroko lanei buruz hitz egiten du Agedak, Franciscoren emazteak; lan asko egin izan duela eta nola lan hori egin behar den.

8. Neguko hotza eta gaixotasunak (ATS-002/019)

Neguko eguraldiari buruz eta horren ondoriozko ezturei buruz hitz egiten dute.

9. Alabak gaur egungo bizimoduan (ATS-002/020)

Pasarte honetan alabei buruz hitz egiten du, nola ez zuten soroon lan egin nahi izan eta lana lortu zutela.

10. Egun bateko bidaia (ATS-003/002)

Behin lagun batekin Ulaiarrera (Altsasuko dermio bat da) joan zeneko istorioa kontatzen du, nola handik Idiazabalera joan zen.

11. Pilota partiduak (ATS-003/004)

Frontoi baten inaugurazioa zela eta pilotan jokatzera joan zirenekoa kontatzen du.

12. Urederrara behien bila (ATS-003/006)

Behin anaiarekin Urederrara joan zeneko istorioa kontatzen du Patxik. Behien bila aritu eta errekan aurkitu zituzten; salbatzea lortu zuten. Behiak berreskuratzea mirari batekin lotzen du bikote altsasuarrak eta kristautasunaren gaia aipatzen dute.

13. Altsasuko inauteriak (ATS-003/008)

Altsasuko inauterien inguruan hitz egiten du. Maskaritekin (Altsasuko herri inauterietako pertsonaia) dantzan eta jai giroan pasatako momentuak. Garai hartako inauterietan erabiltzen zituen jantziez eta biltzeko tokiez ere hitz egiten digu.

14. Etxeetako harriak jartzen (ATS-003/010)

Harria jartzen lanean ari zireneko egun bateko istorioa kontatzen du pasarte honetan; egun hartan gertatutako istripua eta berak egin beharreko lana.

15. Mendira egurra egitera (ATS-003/012)

Mendira egurra egitera joaten zireneko istorio bat kontatzen du pasarte honetan, istripu, apustu eta guzti. Beste behin ere udaletxeak botatako zuhaitzetatik egurra egin zutenekoa ere kontatzen du.

16. Behiak mendian (ATS-003/014)

Behien bila joan zireneko istorio bat kontatzen digu Patxik pasarte honetan. Behiek euliak omen zituzten gainean, beroa egiten zuelako, eta ihes egin zuten. Mendian utzi eta hurrengo egunean joan behar izan ziren haien bila.

17. Garia biltzeko eguna (ATS-004/002)

Larrainaren prozesua, garia nola lortzen zuten azaltzen du. Garia biltzeko egunean, udazkenean, egiten zuten lana azaltzen du eta lana egin eta gero nola bazkaltzen zuten denek batera.

18. Lihoa biltzeko eguna (ATS-004/004)

"Liyua" (lihoa) gariarekin batera egiten da, abuztuan atera eta nola biltzen zuten azaltzen du. Nola jasotzen zuten landarea eta ateratzen duten bertatik lihoa.

19. Altsasuko euskaran abestutako gabon-kanta (ATS-004/009)

Gabon-kanta bat abesten du Altsasuko euskaraz.

20. Kanta erlijioso bat (ATS-004/011)

Jesukristori zuzendutako kanta erlijioso bat abesten du.

21. Katu bihurtu ziren ama eta alabaren istorioa (ATS-004/025)

Istorio bat kontatzen du. Katu bihurtzen ziren ama eta alaba.

22. Gizon-emazte batzuen istorioa (ATS-004/027)

Gizon-emazte batzuen istorioa kontatzen du, non gizonak hirira joan behar zuen zaldiz merkantzia saltzera. Gizona joan eta estudiante batzuek atea jo zuten eguraldi oso txarra zegoela eta, gaua pasatzeko ostatu eske. Gizona ez zegoela eta, sukaldean ez zien eskaini nahi, beraz ukuiluan utzi zituen. Eguraldi txarra okertzen ari zela eta gizonak buelta eman zuen etxera. Norbait zegoela ikusita, sukaldera gonbidatu zituen, gauza asko zekitelako. Ardoa lagun zutela, gizona gauzak galdetzen hasi zen. Bertan gertatutakoak kontatzen ditu.

23. Bertso zatiak (ATS-004/028)

Gizonak abestutako bertso zati batzuk.

24. Irunera bizitzera (ATS-006/002)

Irunera ezkondu zen Teresa. Hara bizitzera joan zeneko kontuak. 9 urtez egon zen Irunen eta garai gogorak oroitzen ditu.

25. Lehengo bizimodua (ATS-006/004)

Gaztetan nola bizi ziren kontatzen du. Oso gogorak zirela aipatzen du eta medikuari ez ziotela deitzen. Etxeko atea zabalik edukitzen zituzten, pobreak inguruan izan arren. Pobreen inguruko istorioak kontatzen ditu.

26. Eliza, herria eta euskara (ATS-006/005)

Aste santuari buruz hitz egiten du, gurutzeak, meza euskaraz. Euskararen inguruko kontuak. Lagunartean dena euskaraz egiten zuten, baina bat-batean jendea gaztelaniaz hitz egiten hasi zen, baita etxean ere.

27. San Juan, Altsasuko ermitetarik bat (ATS-012/001)

Altsasuko ermitak; San Juan. Herriko ospakizunak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com